

**EUSEBIO ERKIAGA - SANTI ONAINDIA,
AURTEN SARITUAK**

Alkarhizketa

Aurten KARMEL aldizkariko idazle bi sarituak izan dira, eta bai sari andiak artu ere!

Euskal idazleren baten *Opera Omnia* dalakoren edo Euskal Letren Merezimenduko Saria, 1988 urteari dagokiona, aurten Bizkaiko idazle bati emon deusoe: Eusebio Erkiagari. Idazle honengana jo dogu eta itauneak egin deusaguz, zuzenean. Santi Onaindiagana ere jo dogu; eta bien erantzunak hemen daukaguz.

KARMEL.- Eusebio, aurten hartu dozun sari hori zelan edo zegatik eskeini deusue?

ERKIAGA.- Hona ba. Euskadiko Jaurlaritzako Kultura Sailak oraintsu sorturiko Sari hori, lehenengoz heldu da Bizkaira. Aurteko urteetan, oker ez baldin banago, Jon Etxaide, Larzabal, K. Mitxelena eta Anton Labayen izan ziran sari-hartzaile. Zelan izan dan? Kultura Sailak bere laguntzaileen bitartez, aukeraketea egin eta horrekin uste honen hasieran hautatu izan dabena, berbetan diharduan hau izan da. Errezoi sakonen barri, ez dakit.

K.- Eta zure saria A. Santi?

ONAINDIA.- Egia diñozu, sari polita hartu dot aurten, uste ba-

rik hartu be: «Ander Mañarikua» ain zuzen. Urte bitik urte bira, Bizkaiko Aldundiak, euskeraren alde lanik geien buru izan dauanari emoten dautson saria. Eta, itxura danez, haurten cuki izan nabe gogotan. Esker beroak nik hortan esku hartu dabenai.

Saria emotea igarotako maiatzaren 31'an izan zan Bizkaiko Aldundian, itzaldi gozo ta txalo guri artean; dirua ta plaka eder bat Pradera hango lendakariak emonda hartu nituan.

K.- Bizkarrean urte mordoa dozuela, sari horrek ezer berezirik esan gura izan eze deusue?

E.- Bai, ba. Berezia, benetan dinozu. Orain arteko sariak ete sarritxuak, lehiaketetan lortuak izan dira aldi bakotxean. Oraingo Sari orokor hau, ostera, opera omnia dalako hau, euskeraz idazten hasi nintzanetik orain arte egin dodana, osoan aintzat hartua izan dalako, halako poz apartekoaren ekarle izan jat. Hamazortzi urtekoa nintzan euskeraz paperetan idazten hasi nintzanean. Beraz, 57 urtean, aldarreetan jakina, baina zeharo laga bage egin dodana, agintepidekoek aintzat hartu dabe.

O.- Lanak izerdia dakar, euskal lanak batez be. Eta izerdi hori sarritua ikustea, nori ez jako atsegin? Gaztetatik ekin dautsot nik euskal lanari. Ainbat liburu ta euskal artikululu dodaz nik idatzi ta argitaratuak: «Karmel» eta «Olerti» neuk sortu ta urteetan aurrera eroan dodaz. Beraz, egin-lanak onartuak izateak poza dakar-tso edozeini. Ez izan dudarik.

K.- Aita Santi idazlan asko eukiaz, zein ete dozu zeure lanik garrantzitsuena?

O.- Aitarentzat, bikain dira bere ekarri guztiak. Idazlearentzat bardin bere liburuak; danak ilusiño bardiñez eta ames uts egiñak, naiz-ta erakusketa egikeran batetik bestera bardin-ezaz konturatu. Nik ba-dodaz liburu jatorrak: «Gure bertsolariak», «Larrea eta Karmeldarrak», «Goiznabar» (poesi saila), «Euskal Literatura» (zazpi ale), «Euskal Elertia», «Lamiñak», «Euskaldunak eta osasuna», «Arana-Goiri olerkari», «Nere baserria» (poema), «Santa Teresa», «Gernika», «Oroi-txinpartak»...

Ba ditut bildumak: «Milla Euskal Olerki Eder», «Jolasketa», «Gure Urretxindorra», «Eskutitzak», «Euskerazko eun maite-

olerki onenak» (euskeraz ta erderaz), «25 Antzerki labur», Lauaxeta'ren «Olerki guztiak»..

Ba-ditut itzulpenak: R. Tagore'ren «Iru poema», «Eguneroko Meza», Santa Teresa'ren «Onbidea» ta «Egoitzak», «Bergili'ren Idazlanak osorik», Dante'ren «Jainko-Antzerki», Homero'ren «Odisea», Goethe'ren «Faust», Pio Baroja'ren «Ipuñiak», Horati'ren «Odak eta Egodoak» (euskeraz eta latinez).

Honeitatik «Milla Euskal Olerki Eder» eta «Oroi-txinpartak» nik maiteen.

K.- Zuk Eusebio, beste lan batzuen artean nobelagintzan jardun izan dozu. Zeure nobelarik esangarrienak, zeintzuk?

E.- Hasierako nire zerak idaztela txikerrak, uriko albistak, antzerkiren bat edo beste eta olerkiak ugariago, horreek izan ziran harako 36 gn. urtean gerratea sortu aurretik. Idazten hasi eta handik hogeitaz urtera -hain zuzen inoren zirikadak, prosa luzeagoak egiten hasi behar nebala ta- hasi ta amaitu neban ixilgiro haretan, nire lehenengo nobelatzakoa, «Arranegi», 1958 g. Zarautzen argitaratua. Ohitura elebarria izan zan, T. Agirre ondarrutarraren oinazetzi jarrai, beste handi-ustekeriarik bage. Harrezkero beste bost idatzi ta argitaratu dira, bi Zarautzen eta oraintsuagokoak Bilbon. «Batetik bestera»-ren bigarren argitalpena be bai. Elebarriok garrantzirik ete daben, neuk itanduko neuskizu, gure nebelagilerik goratuena dan horren lanak be, gaurko kritikoen maixiaketan astindu egin dituen ezkerok; barbarako «Garoa» bera, eta «Añamendiko Lorea». Aldian aldiko, gazteek ez dira gehienetan zaharragoen eritxiko.

K.- Euskal elebarri alorra, zelan ikusten dozu?

E.- Alor hori oraindino «mutikoa» dala esan ginei. Lehenengo nobela euskerazkoa jaio zala ehun urte besterik ez dira. R.M. Azkue eta Elizanburu novelette horrean egileak, «Peru Abarka» nobelatzat joa izan ez dalako. Aurreko mendeetan Europako hainbat herritan eleder sail horretan jo ta keia jardun izan dabe eta hor, hutsune haundia daukagu, moduren baten bete ezina dan hutsunea. Oraingo aldian areago idatzi daroe gazteek, baina artean ez dago nobela harrigarrik, épatant daitekenik. Gazteok

ikasketa ugari ta sakon samarrak egiten ditue, trebakuntzadun izateko aukera mamina dabe ta, (guk geuk izan ez genduana). Horrelan hurreko etorkizunean gure nobelagintzan aurrerakada galanta egiteko aroa ba dagoala, uste izan beharko.

K.- Eta zuk, A. Santi, zelan ikusten dozu gaur euskal literatura? Eta poesigintza? O.- Irratiak, telebistak eta jenteak, itaun hauxe zuzentzen dauste geienik. Eta barruko kezka baten agerpena, ezta besterik, nik uste. Euskera galduz doa, aldatz-behera datorren mokilla iduri. Min emoten dauku onek? Erantzuna bakotxak berea azaltzen, zer arikoa dan axe geienez Batu-zale baldin bada, orrek aterako ei dau onik gure izkuntza; ez bada, horrek ei daukaz erru guztiak. Iztun dogun herria, zahar eta gazte, azken honekin dago: batuak -irradi, telebista eta prentsa- galdu ei dauku oso-osorik; erriak ez ei da ezer ulertzen gaurko komunikabideen euskera mordoilloa. Nik bestera sinistu nai neunke, baiña egiaz...

Eta olerkigintzan? Lantzen ete dogu poesirik? Sariaren bat itxaroten dogunean, zerbait, ez gero poesia bera gaitik, txintxiñak damoskun gili-gilia gaitik baiño. Eta ete daukagu nun agerturik? «Olerri»-k pizkat; baiña ba-dagoz hemen eskurik loitu nai ez dabenik. Esku baltzak ei daukaguz ez geldi -politikan lez-gure euskal gauzak, hizkuntza bera be bai, alperrik galdu naian. Esana dan hau ez dot ontzat hartu nai, baiña ez ete da egia?

K.- Kritika aldetik, zer barri gure artean? Eta propaganda aldetik, zer?

E.- Antxina ez dala, gure arteko lanen kritikea bigunegia zala ikasi genduan. Euskeraz egin ezkeru, ederto. Jakina, horrelakoak hasi-barritan jazoten dira. Noizbait, eurekiko adin bardineko ziran ene adiskide biri, biok hilda dagoz, bakotxak bere alorrean esana entzun neutsen: Kritika biguna, agian, ez da kritika zindoa; eta beraz, gure gauzetan be, zehatzagoa, egia atxikiagoa izatea mesedegarri dalako, gauzen eta izateen jatorrasuna makaldu edo gal ez dadin. Aldizkarietan liburu agerpen unean erreseina laburra egitea, ez da, ondo dakizu, kritika ikasi ta aztertua. Bai; egi-leak eskuganean igurtziak gurago izaten ditu, atximurkadak baino. Labur esateko, jorratzea preminazko da. Propaganda alde

hori, horrezaz baraurik nago. Arean, zabaltzaile bete-betekorik ez dakit izan dan; baina liburu asko bazterturik gera daiteke, nunbait, programa zabaletatik landa, zoritxarrez.

O.- Zer da kritika? Norbere arikoa jaso ta besteak ixil-aztea? Hori bada, moduan daukaguna dozu. Liburu bat dala, sariketa bat dala, eritxia emon bear jakon edozein gai dala... nazkagarri da irakurtea. Egiatzko kritika hau dozu: liburu batek, adibidez, daukazan onak eta txarrak agirian ezarri eta daukazan akatsak zeintzuk diran adierazo, ez suster bako eritxi emonez, egiatzko jakiteari dagokionez aitzen emonaz baiño. Horrela egiten ete da? Ba-dira batzuk, oso iguingarri, akatsetatik hasi ta akatsetan amaitzen dabenak, liburuak euki leiken ederrik aitatzeka. Beste batzuk, alderantziz, kritikaliaren ustez eder eta atsegin dana, axe gora be gora aipatu. Alderdikeri txepela, ziur asko. Propaganda autzian orobat.

Eritxi-emoille bikain bat ezagutu dok nik euskal literaturan, Elantxobe'ko seme jator Andima Ibiñagabeitia. Sarri egon naz harek «Euzgo-Gogoa»-n egin zituan horduko liburuai egitiño-ko kritikazko lanakaz idazti eder bat osotu naian. Ederrak eta akatsak ba ekian harek neurrian jarten, ots, gari ona ta txarra bereizten. Haren zentzunak eta jakitateak erakutsiko leuskigue bako txari berea emoten.

K.- Beste hizkuntzetako lanak euskeralduteari, zer deritxazu, Eusebio?

E.- Alde batetik, beste hizkuntzetako eleder mordoak etxeratzeta, moduren baten, buruari ta jakiteari dagokionez, aberasgarri diran elementuak barruratzeta da. Horraitino, itzulpen jardunean edozein hasten bada, sarritan euskereak gura ta guraczo bioren bultzada ez-jatorrak jasan daikez, ta nabarmengo daitekena, gure geure sortzapena ta emoa urritzea.

K.- Itzulpen horreek baturantzako joerapean ala Bizkaieraz be egiteaz, zer...?

E.- Hemen dogu burruka usaineko beste eztabaidea. Hainbat bidar esan izan da, batasun antzerakoaren zale edozein euskaldun izan daitekela. Baturantzeko bidea zein, noiz, zelan eta nun urratzen hastea, hor dago kakoa, hor dago untzea. Batetik, hiz-

kuntzearen ardatza eta aberaskaiak; bestetik, egiketearen egokitasuna. Nun dago on-gaitzak ez dituen bidca? Hor dago, ba.

K.- A. Santi, Batua? Bizkaiera?

O.- Ona beste itaun bat askotan egiña. Batuaren kezka biziro dabil euskaldunen artean; egin dan euskera batu hau ez da geienek ondo ikusia. Zelan dakizu hau? Kartaz eta alkar-hizketaz eundaka etorri jataz zorionka. Zergaitik zorion horrek? Illa batzuk dirala telebistan euki genduan mai-ingurukoa dala-ta, ain zuzen. Ni ei nintzan an «batuaren» aldeko bakarra: «bakotxak berea lenengo eta besteena gero. Hor batua, herriak egiña, ez goitik behera naitaez cragiña: zuk zeure hizkelgia ondo ta sus-traiz ba-dakizu, besteetaz be laster jabetuko zara. Bizkaitarrak lenengo bizkaieraz, eta gero polito-polito baturantza.

K.- Euskera ikasten inoiz baino lagun gehiago, eta hitzegileak urrituaz ete doaz?

E.- Zurrumurruak diranez, ba da horrelako zerbait. Euskeraz erdi ikasi dabenak ba dira bazterretan. Eta batzuk, artez edo traketsago, euskeraz egiteko gertu egoten dira. Euskaldun zaharrek, zelanbait esan, euskera jakin ba dakie, beti euskeraz egiten ete dabe, ete dogu? Ez da errez, erdal menpe dogun gizarte honetan. Beste egoerea be, hor dago: mutiko ta neskato euskaldunek be -ikastoladun edo ikastolabako- kalean behintzat, gaztelaniaz errezago edo ugariago egiten dabela, askorengandik entzuten dogu.

K.- Eta etorkizunaz?

E.- Ez dogu igarlerik gure aldian eta inguru, Testamentu zaharrean ugari samar azaltzen ziran arren.

O.- Ez dakit. Aurtengo udabarri ta udaren antzera. Negu ederraren ostean, uste zanez, udaldi bikaiña izango genduan, baiño ez da horrela jazo. Urteetako ekaitz biurri neketsuaren ondoren, eguraldi gozotsua itxaroten, baiña ez da hori gertatu. Erdezkako buru-jabetza lortu zalarik, uste zan hizkuntzaren loraldia be goza-azoko genduala; ez da olan izan. Euzko Jaurlaritzak lan ikaragarria burutu dau azken urteotan herriak atondu ta edertzen: premiñaz egozan eta ondo egiña. Hizkuntza saillean be horixe

itxaroten zan, eta nik uste dot goitik egin dirala hortarako alegi-
ñak. Nok ipiñi ditu eragozpenak? Tartekoak diñoenez, goitiko
laguntzak ez dau zentzunezko erantzunik izan. Asko dira, he-
rriak bala-bala diñoenez, goiko dirua xuagatu dabenak, baiña di-
ru-laguntza horrek eskatzen eban lanari muzin egin dautsoe,
zori txarrez. Liburu, idazlan, sariketa, irrati, telebista, zabaikun-
de-tresnak zenbat kalte egin dautsoen gure hizkuntzari, hortan
diarduenen ardura-ezaz, iruzur, sai ta amarruz. Era horretan ezin
daikegu jaso hiltzori dagon euskera. Baltz ikusten dot gure hiz-
kuntzaren geroa.

*K.- Politika joko eta eskuketa nahastuetan euskerea ikurrin antzera
ez ete da erabilten?*

E.- Leitekena da Ikurrina bera be, akiakula erakusgarri erabili
daroe, norbere komenentziarako egoki dala uste izanik. Euske-
rea hartu, erabili, bazterrean laga... Bilboko ta Donostiako egun-
karietan be, euskera gitxi eta herriarentzako ilun samarra, edo
bapere ez, demokrazian hamaika urte dagoaneko... euskerazko
egunkari jasekorik noiz, noiz?

O.- Hau edo beste lortzeko euskera miñean, baiña gero, a lortu
danean, albora itxi oi da euskera arlo guztietan. Lotsagarria be-
netan! Sariketa bat, itzulpen bat, liburu bat, hitzaldi bat, euskera
xede lez arturik, eta azkenik dana guzur-ontzi! Euskera ez, beste
asmo batzuk dabiltz hor jokoan. Olan salbatuko ete kinka larri-
tik? Mirari aundiegia litzateke, ez dakit nok egiña. Hau ta beste
asmo onagaz ibillirik be, beste asko euskera suntsitzen, joko in-
dartsuago baten mende. Holan geure egunotan hilgo jaku geure
ondasunik begikoena. Napar herritxo Garraioa'n esan eustienez,
hango maisu bat naiko izan zan, gerra aurretik eta gero be ho-
raindik bizi iraun euskera lurperatzeko. Hauxe berau dagie gaur
Gipuzkoan eta Bizkaian euskaltzale lez agertzen diran erakunde
askok.

K.- Gizon ospetsuak joan jakuz unada laburrian gure artetik.

E.- Bai, mingarria da benetan baina... Orain urte bete don Ma-
nuel Lekuona, Lekuona zarra joan jakun. Azken urteetan min-
gostasuna ixil ixilik behin ta barrero iruntsi ondoren. Izan be, le-

hentxuago aitatu dogun baturantzakoaren egokitasuna zala ta ez zala, bere eritxia argi ta garbi azaldu ebalako. Harik laster, udazkenean -hori be, ba da ba, betan gertatzea- Koldo Mitxelena, egokitasun berekiko eritxi ezbardina ebana, joan jakun. Biok gizon haundiak eta miresgarriak euskerearen barrutiko lanetan eta nekeetan. Hirugarren euskaltzain jaun bat be bai, Juan Gorostiaga langile gordea. Euskerearen eremuko hain zuzen izan ez diran beste gizon bik be, laga dabe mundu hau, Alberto Onaindia eta A.E. Mañarikua, abadeak. Egia da bostok urtez beteak egon dirala eta emoi ugariak eskeini izan deutesozala gure Herriari. Baina hutsunea lagateak, betiko agur luzeak zarrada urragarria egin ohi deusku bihotzean. Goian beitez.

O.- Itzaliz doazala gure kultura zeruko izar ederrak. Ordezkorik agertuko etc? Ba leiteke ezetz, urteetan Nortasun bete-beteko gizasema genduan Onaindia, eta euskal kondairan, aspaldiko urteetan, gitxi Mañarikua lakorik.

K.- A. Santi, zure literatur lanetara biurtuz, ba al dozu esku artean lan-asmo bereziren bat?

O.- «Oroi-txinpartak» argitaratu ondoren, merezi dozu-ta, «dolce vitta», atsedeen-aldi ezta. Ez da hau niretzat; euskera hil-agiñik daukagun bitartean, ni ez naz kerizperatuko. Lanari dautsot ekingo. Lanik ez egitea niretzat, aizeak ikuturiko orria geldirik egotea lez litzakit. Hori niretzat ezina da. Beraz, urteen sorta bizkar-gaiñ dodala be, ni lanera. Manuel Lekuona'k esaten eustan, berari bizia lanak luzatzen utsola.

K.- Milla esker, Eusebio Jauna eta Aita Santi, alkarrizketa honegatik. Irakurleak ere, uste dot, zuen hitzak pozik hartuko dabezala. Agur.

Julen Urkiza